




txinpart

haurtzaro ikastolako aldizkaria

2004 Abendua • 30. zenbakia





A ZE HAUR PILA!!

EDERRAAAAA KUADRILA!!!



AURKIBIDEA


HAURTZARO INFORMATZEN	3
HATZAK BETE LAN	10
GURASOOK JAKIN DEZAGUN	18
GU ERE KAZETARI	23
NAHASTE BORRASTE.....	26



Ibilaldien helburuak

PLANETARIUM-a (DBHI): Natur Zientzietako I unitatean, "Izarrei begira", landutako helburu eta edukien gain begirada ematen dio irteera honek. Ikus-entzunezko baliabideek, hain urrutiko eta abstraktu diren kontzeptu eta hitz teknikoak begi eta belarrietara hurbilduz ulerterrazagoak bihurtzen dituzte. Ibilaldi honek gaiari globaltasun eta biribiltasuna emanen dio.

Ibilaldiak bigarren zati bat badu Gizarte Zientziekin lotua. Gelan erabili diren mapa eta planoen ezagupenei erabilpen praktiko bat ematen zaie. Iruñeko planoaren hainbat toki, ikur... interpreta-tu eta aurrez adierazitako ibilbide batean orientatzen ikasiko dute ikasleek.



MIRANDAOLA eta ZERAIN (DBH2): Legazpiko burdinola eta Zeraingo haize-ola eta zerrategi hidraulikoa bisitatzen dira irteera honetan. Teknologia arloaren aitzakian egiten da bera. Bisitaldi hauek DBHI eta 2. mailan landurikoak uztartzen dituzte. Lehen mailan landutako mekanika atala eta bigarren mailan lantzen ari garen energia. Bertan, energia hidraulikoa mugimendu mekaniko nola bihurtzen den eta argia nola sortzen den ukitzera iristen gara. Bide batez burdinaren industriak gurean izan duen garrantzia baloratu nahi da



Musika gela

Aurtengo ikasturtean, L.H eta D.B.H.ko ikasleek, musika gela berria, handia, argia, ederra eta ezin hobe, estreinatu dute.

Gela artistikoa guztiz, musikariek ez ezik, Haurtzaro Ikastolako dantzari taldeak ere bertan egiten baitituzte dantza saioak.


Oso gustura gaude, izan ere, orain bai, eroso mugitu gaitezke, espazioa ederra baita. Honela, dantzak, erritmo ariketak, koreografiak eta dramatizazio ekintzak ere egiten ditugu, besteak beste.

Eskerrik asko denoi, honelako gela bat eskaintzeagatik.



3. Hiruhilabeteko irteerak

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
H.H. ETAPAKO IRTEERAK			
HH 2	URRIAK 7	TXILLIDA LEKURA	TXILLIDAREN ARTE LANAK BERTATIK BERTARA IKUSI, IKUTU, USAITU, ENTZUTERA.
HH 2	URRIAK 28	MENDIBILGO TXARARA	UDAZKEN GAIA DELA ETA HOSTO, GAZTAIN, EZKUR BILTZERA.
HH 3	AZAROAK 24	DONOSTIARA ZINEA	ZINEA EUSKARAZ, ZINE ARETOAN, ENTZUN ETA IKUSI. ZEHAR LERROAK LANDU
HH 3	IRAILAK 28	OIARTZUNGO POSTETXERA	GUTUN BATEN IBILBIDEA EZAGUTU, SEILOAREN ERABILERA EZAGUTU.
HH 3	URRIAK 22	HONDARRIBIARA	GARRAIO MOTA EZBERDINETAZ GOZATU.
HH 3	URRIAK 29	MENDIBILGO TXARARA	HOSTO EZBERDINAK BILTZERA.





MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
L.H. ETAPAKO IRTEERAK			
LH 1	Irailak 29	Aristizabal baserrria	Sagardoaren prozesua ikustera
LH 1	Urriak 27	Luberri museora	Dinosaurioen gaia lantzeraz
LH 1	Azaroa	Sara eta Zugarramurdiko kobazuloetara	Lehen gizakiak gaia lantzeraz
LH 1 - 2	Irailak 23	Zinemaldira	Zinea euskaraz entzun eta ikustera
LH 2	Urriak 1	Aristizabal baserrria	Sagardoaren prozesua ikustera
LH 2	Urriak 22	Egi-luxe sagardotegira	Sagardoaren prozesua ikustera
LH 2	Azaroak 12	Hondarrabira	Alde zaharra ezagutzera erdi aroko aztarna bezala
LH 2	Azaroak 25	Pasaiera: itsas gela proiektura	Euskalerrriko itsasgizonen historia ezagutzera
LH 2	Azaroak 30	Acuarium-era	Itsas fauna ezagutzea
LH 3	Irailak 17	Ergoiena	Ingurua ezagutzea
LH 3 - 4	Irailak 23	Donostiara	Zinemaldiko pelikula ikustera eta zikloko guztiok ondo pasatzea
LH 3 - 4	Urriak 7	Aristizabal baserrria	Sagardoa nola egiten den ikustea
LH 3	Urriak 25- 26 -27	Piraten etxera	Mailakide guztiok hiru egun elkarrekin pasatzea
LH 4	Urriak 25 -26 -27	Baratzera	Mailakide guztiok hiru egun elkarrekin pasatzea
LH 4	Azaroak 4	Donostiara	Hiriburua ezagutzea.
LH 5	Irailak 28	Karrika Ergoien Elkar ezagutu.	Harremanak
LH 5	Azaroak 29		Ikaspilota
LH 5 - 6	Irailak 22	Herriari buelta	Autorik gabeko eguna
LH 5 - 6	Irailak 23	Donostiara	Zinemaldia
LH 6	Irailak 28	Pulliko kaskura	Gure arteko harremanak sendotu
DBH ETAPAKO IRTEERAK			
DBH 1 - 2	Irailak 17	Sorondo - Listorreta	Harrera egunaren jarraipena
DBH 1	Urriak 28	Iruñea: -Planetarium -Hiria ezagutu	Natur
DBH 2	Urriak 28	Legazpi Zerain	Teknologia
DBH 1 - 2	Urriak 2	Bizikletan ibilaldia	Autorik gabeko eguna
DBH 1 - 2	Urriak 26	Udaletxera	Juul / Harremanak
DBH 3 - 4	Irailak 17	Elorrietako kaskora	Zikloaren topaketa eginez, mendizaletasuna eta ingurua ezagutzea.
DBH 4A	Urriak 14	Piraguan ibiltzera-Bidasoa	Naturarekin bat eginez kirol alternatiboa ezagutzea.
DBH 4B	Urriak 15	Piraguan ibiltzera-Bidasoa	Naturarekin bat eginez kirol alternatiboa ezagutzea.
DBH 4	Urriak 22	Herri kirolak-Errenteriara	Herri kirolen praktika bultzatzea.
DBH 4	Azaroak 18	Pelikula ikustera-Amaia-Irun	Osasunaren prebentziorako programa lantzea



4 URTEKO NESKA-MUTILOK ARGITXOREN GUTUNEN ZAIN EGON GARA EGUNERO, BERAK AGINDUTAKOA BETE DUGU 9 EGUNETAN ETA JAKIN ASKO SAIATU GARELA, BUKAERAN SORPRESA GENUELA GENEKIEN ETA..



.SAN MARTIN EGUNA OSPATU GENUEN TXERRIKIAK DASTATUZ.




ETA GAINERA ARGITXO GUREGANA ETORRI ZEN ETA BADAKIZUE, KRISEILUA PIZTUTA EKARRI ZUEN.



EGUN GOZOA PASA GENUEN
JAN ETA DBHKOEN IPUINAK
ENTZUN ONDOREN,

ESKERRIK ASKO HANDIAK





Erein eta gero uzta bero

Aurreko ikasturtean bezala, Haurtzaro ikastolako hainbat ikasle ohiak goraipatu nahi ditugu.

Arlo eta ekintza desberdinetan beraien distira nabarmendu da:

Ioritz Mendizabal: Aurreko batean aipatu genuen Frantzian txapeldun ordea izatea iritsi zela, baina oraingo honetan "Urrezko usta" lortu du, Frantziako lasterketen denboraldian proba gehien irabazten dituen jockeya izan delako. Historian inork ez du horrelako marka lortu.

Jose Kruz Larre: Aurtengo udaran Alpetan izan da Ironbiken parte hartzeko. Mountain bikeko froga gogorrenetako bat da.

Iker Leonet: Illes Balears txirrindulari profesionalen taldean arituko da. Hemendik gure animu guztiak.

Iban Retegi Comas: Oraindik ez dugu ikasle ohia baina bere izena hemen aipatzea bidezkoa iruditu zaigu Euskadiko txapelketetan hiru aldiz garaile izan delako. Aurrera eta ez moztu koleta!

GUZTIEI GURE ZORIONIK BEROENAK.



Jose Kruz Larre



Ioritz Mendizabal

Aristizabaleko aiton-amonak guretzat lanean

Aristizabal Oiartzungo baserri bat da. Baserria izateaz gain, sagardoa ere egiten dute eta gainera oso modu berritzailean.

Arratsalde pasa joan ginen eta oso ondo pasatu genuen. Oraingoan ere, hirugarren eta laugarren mailakoak elkarrekin joan ginen.

Bertan, sagardoa nola egiten den erakutsi ziguten. Lehenengo, noski, sagarrak bildu behar dira, zakutan sartu eta tolare ondoan pilatu. Segidan garbitu egin behar dira eta horretarako etenik gabeko katearekin, eskailera mekanikoan bezala, makinak gora eramaten ditu. Ondoren fuerte-fuerte zanpatuz zukua ateratzen da, hau da, zizarra. Gero, aukera eman ziguten zizarra probatzeko.

Aitonak "zizarra" eman zigun eta amonak "paxintxik".

Eh! Gu ere 2. mailakoak bertan izan ginen eta guk ere edan genuen "zizarra" BEGIRA!!!

Interesgarria suertatu zitzaigun Urtzen amonaren gonbidapena.



ESKERRIK ASKO !!!



Kaixo, lagunok:

LH 3. mailan lantzen ari garen gaietako bat Egip-
to dugu.

Zuek ezagutzen al duzue?

Ba gu horretan ari gara. Bertara joandakoek,
gure amonak, izebak... ateratako argazkiak ikusi
ditugu, liburu asko ere bai, musika ere entzun
dugu eta hegoaldean nola dantzatzen duten ere
ikusi dugu. Horretarako egiptoar dantza egiten
duen Ainhoa Izagirre gure gelara etorri zaigu eta
ederki dantzatu ere. Guk ere dantzatzeko auke-
ra izan dugu.

Eta bukatzeko, maketa eder bat egiteko asmoa
dugu "Nilo ibaiaren ingurua" aurkeztuz.

Agur lagunok. Beste bat arte.



Zenbat
urte betetzen ditudan?
UF!
ASKO!!!





Erdi aroa, gazteluak, zaldunak, damak...ze nolako istorioak irakurri ditugu eta entzun ditugun. Irakasleak esan zigun kontatutako gauza asko egia zirela: batzuk ez zutela lanik egiten Nobleak zirelako eta bere ordeez jopuak eta nekazariak egiten zutela lana. Gutako askok nahiko genuke Noble izan eta lanik ez egin baina Nobleak ez garenez lan asko egin dugu. Hondarribira ere joan ginen bertako harresiak ikusteko. Izugarrizko lanak egin zituzten garai hartako jopuak!!!

Piraten etxea

Kaixo:

Gu LH 3. mailakoak gara. Urriaren 25, 26 eta 27an Piraten etxera joan ginen. Iritsi ginenean, elkar aurkeztera gure zain zeuden Gartzzi, Mari eta Martin piratei.

Arratsaldean Jaizkibel mendira joan ginen eta etxera bueltatu ginenean, dutxatu, gero afaldu eta pixka bat jolastu genuen.

Hurrengo goizean kalera atera ginenean altxorraren bila ibili ginen, baina ez genuen lortu. Bazkal ostean txalupan ibiltzera Donibanera jaitsi ginen, olatu oso handiak zeuden. Buelta bat eman ondoren meriendatzera. Eta berriro Piraten etxera malda gora. Dutxatu, jolastu eta afaltzera. Hamaikak inguruan lotara.

Hurrengo goizean, haize handia zegoez, etxe barruan jolastu izan behar genuen. Bazkaldu eta gero piraten zapia jarri eta argazkiak ikusi genituen.

Autobusa joan zenean denok etxera,...





Baratzeko egonaldia



Urriaren 25ean Baratzera joan ginen, Gernika inguruan dagoen Baserri Eskolara. Santurtziko Ikastolakoekin batera iritsi ginen. Oso ondo moldatu ginen beraiekin. Baita tailerretako lan taldetan ere.

Baratzen, baserriko animaliak ezagutu genituen eta baserriko lanetan ere aritu ginen.

Gauza asko ikasi genituen: zaldian ibiltzen, erlagintza eta abar. Ukuiluan baserriko lanean aritu ginen eta negutegietan berriz, baratzeko lanetan. Abereei jana eman genien: ardiei, zaldiei, oiloei, oilarrari eta abar. Txerriei hain gustuko dituzten gozokeriak egin genizkien eta poliki-poliki untxiengana ere inguratu ginen.



Tailerretan, ogia egiteaz gain, zurgintzan ere aritu ginen. Gainera, perretxikoak bildu eta aztertu egin genituen.

Azkeneko gauean asko dantzatu genuen eta batzuk "marrantakin" bukatu zuten. Lo ondo egin genuen, baina burukorik ez zegoen.

Askok gustatu zitzaigun Baratzeko Baserri Eskolako egonaldia. Oso ongi pasa genituen hiru egunak.

LAUGARREN MAILAKOAK








If you want to find out more about sea animals read the murals that LH 4 student students

Have done in their English class.

You will enjoy them!!!





Zure laguntza,
3.200 oartzuarren laguntza,
behar-beharrezko izan dugu
Udalarekin AKORKIOA sinatzeko.

Eskerrik asko

Elkarlana eta elkarrizketa izan dira
orain ere diferentziak gaintzeko bidea.
Aurrerantzean ere horrela izan dadin
lana egingo dugu.



CONTENIDO DEL ACUERDO

La situación de la anterior legislatura, el punto de arranque de la nueva corporación, comparación entre las subvenciones conseguidas y la valoración que hace la ikastola

CONCEPTO DE LA SUBVENCIÓN	SITUACIÓN CON LA ANTERIOR CORPORACIÓN	SITUACIÓN CON LA ACTUAL CORPORACIÓN AL PRINCIPIO	SITUACIÓN CON LA ACTUAL CORPORACIÓN TRAS LA NEGOCIACIÓN	VALORACIÓN
Subvenciones directas para los padres y las madres.	Se recibía el 25% del total de la cuota anual.	Sin subvención.	Sin subvención; las familias con necesidades especiales las recibirán a través de Bienestar Social.	Negativa.
Mantenimiento y ayudas a pequeñas obras.	El Ayuntamiento se ocupaba de estos gastos directamente.	Se plantean las mismas subvenciones que a la escuela pública del pueblo.	El Ayuntamiento dará una cantidad fija por alumno (*): Para 2005. 329,55 € + IPC del 2004.	Esta cantidad oculta los gastos de la ikastola de este curso. Creemos que el encargarnos de la gestión supondrá una mejora.
Financiación de las deudas provocadas por la construcción del patio y del frontón.	El Ayuntamiento se ocupaba directamente del 100% de los gastos.	Sin subvención.	El Ayuntamiento se compromete a pagar el 100% mientras dure la deuda (*): Ese gasto ha supuesto el año 2004 un total 53.021,35 €.	Lo valoramos muy positivamente, porque da estabilidad a la ikastola. Aunque hasta ahora se recibía esa cantidad de dinero, los partidos de la corporación votaron contra este acuerdo. El tema ha quedado zanjado, y los partidos han expresado un compromiso de cara al futuro.
Inversiones	La corporación tenía una actitud muy abierta con respecto a la ikastola y se recibieron muchas ayudas.	Sin subvención	El Ayuntamiento se compromete en firme a incluir una partida para este concepto en los presupuestos anuales. La partida para este año es de 32.000 € (*).	Lo valoramos muy positivamente, porque da estabilidad económica a la ikastola.

(*) Hay que presentar facturas para justificar los gastos.

AKORDIAREN EDUKIA

Aurreko legealdiko egora, korporazioaren berriaren abiapuntua eta lortutako dirulaguntzen erkaketa eta Ikastolak egiten duen balorazioa

LAGUNTZEN KONTZEPTUA	AURREKO UDALBATZAREKIN GENUEN EGOERA	EGUNGO UDALBATZAREKIN HASERAKO EGOERA	EGUNGO UDALBATZAREKIN NEGOZIAKETA ONDORENGO EGOERA	BALORAZIOA
Gurasoentzat zuzeneko laguntzak.	Urteko kuotaren kopuruaren %25 jasotzen zen.	Ez dago laguntzarik.	Ez dago laguntzarik; behar berezia duten familien laguntzak Ongizateren bidez bideratuko dira.	Ezkorra.
Mantenua eta obra txikientzat laguntzak.	Udala, zuzenean, gastu hauetaz ardurazten zen.	Herriko Eskola Publikoari ematen dizkion dirulaguntza berdinak planteatzen dira.	Udalak, ikasleko kopuru finko bat emango du honetarako. Kudeaketa Ikastolaren esku geldituko da(*): 2005. urteko 329,55 € + 2004ko KPI.	Kopuru honek denboraldi honetan Ikastolak eragiten dituen gastuak estaltzen ditu. Kudeaketa guregain gelditzeak hobekuntza suposa dezakeela uste dugu.
Jolaslekua eta Frontoirearen eraikuntzak eragindako zorren. finantziarioa.	Udalak zuzenean gastuen %100 beregain hartzen zuen.	Ez dago laguntzarik.	Zorrak irauten duen bitartean, kopuru honen %100 ordaintzeko konpromisoa hartu du udalak(*): 2004ko urtean gastu hauen kopurua 53.021,35 €koa izan da.	Oso balorazio baikorra egiten da, Ikastolari egonkortasuna ematen diolako. Orain arte diru kopuru hau jasotzen bazen ere, egungo Udaltzatza osatzen duten alderdiek akordio honen kontrako bozka ematen zuten. Gaia argitu da eta gainera aurrera begira konpromiso bat ere adierazi dute Alberdi hauek.
Inbertsioak.	Udalbatzak ikastolarekiko jarrera oso irekia adierazi du eta laguntza ugari ematen zuen.	Ez dago laguntzarik.	Konpromiso tinkoa hartu du udalak, urtero kontzeptu honetan aurrekontuetan partida bat sartuko dela. Aurtengoa 32.000 €koa izan da. (*)	Balorazio baikorra egiten da. Ikastolari egonkortasun ekonomikoa ematen dio.

(*) urtero fakturekin justifikatu behar da.



Haurtzaro Ikastola

— O I A R T Z U N —

Tu ayuda,
la ayuda de 3.200 oíartzuarras,
ha sido absolutamente necesaria, para conseguir
el ACUERDO que hemos firmado con
Ayuntamiento.

Eskerrik asko

La colaboración y el dialogo,
han sido nuevamente, el camino para
superar las diferencias.
Trabajaremos para que así sea también
en el futuro.



Donostiako ibilaldia

Laugarren mailakoak, ibilalдитik ibilaldira gabiltza. Oraingoan gure hiriburua ezagutuz, Donostiara joan gara.

Bisitaturako lekuak: Miramongo Parkea, Haize Orrazea, Untzi Museoa eta Aquariuma izan ziren.

Lehenengo Aquariumera joan ginen. Sarreran dagoen balearen eskeletoa ikusi ondoren, arrain mota asko ikusi genituen: maskorrak, algak, oskoldunak, koralak eta hainbat itsas izaki. Bi marrazo ere bazeuden, Txuri eta Urdin izenekoak. Marrazoak asko gustatu zitzaizkigun, agian, handienetakoak direlako. Aldiz, bitxiarena iruditu zitzaigun arrainetako bat, arrain "gardena" izan zen, ezaugarri horren ondorioz barnean zuen hezurdura guztia ikusten baitzitzaion.

Zenbait arrain ukitu ahal izan genituen. Tunel berezi batetik pasa ginen eta bertan arrain asko ikusten ziren. Bukaeran pelikula bat ikusi genuen.



Baina, zer da hau? Zuek gure atzetik zabiltzate edo gu zuen ondoren? Guk ere marrazoak ikusi genituen, igerian eta jaten ere. Bi urpekari sartu eta beldurrik gabe ahora eman zieten janaria!!! Benetan harrigarria.

2. mailakoak

Segidan Untzi -Museora joan ginen eta aspaldiko aztarnak ikusi ahal izan genituen. XIII. eta XIV. mendeetako untziolak zeuden, baina miniatuazkoak ziren. Untzien maketaz gain, aingurak, dokumentuak eta nabigaziorako tresnak ere bazeuden ikusgai.

Beno gu Untzi -Museora ez ginen joan baina bai untzi erakusketa batera eta itsasontzien maketa ederrak ikusi genituen.

Ondoren, Miramongo Parkera igo ginen bazkaltzera eta gero eraikuntza famatuen maketak ikusi genituen. Oso denbora gutxi izan genuen jolasteko. Hori, beste egun batean egingo genuela esan ziguten irakasleek.

Eta bukatzeko, Txillidaren Haize-Orrazera gerturatu ginen. Marea behe-ra egokitu zitzaigun eta guk nahi hainbateko olaturik ez zegoen, baina jolasean ibili ginen. Batzuk zuloetatik oihukatzen eta besteak, olatuei begira.





Teknologia berriak teknologia arloan

Orain lau bat urte pizten hasi zen Haurtzaro ikas-tolan teknologia arloaren eta informatika teknologien arteko erromantzea, internetera loturiko lehen ordenadorea teknologia gelan kokatu zenean.

Lehen ordenadore hartatik hona gauzak asko aldatu dira. Erronka handiak ezarri eta makina inbertsio egin. Hau guztia, Haurtzaron jarduten duen ikasleriak ikasketa ulerkorragoa eta garai berrietara prestatuagoa izan dezan.

Lehen ordenadore hark bigarrena ekarri zuen hurrengo urtean, baina oraindik, Ikastolen elkarteko Ostadar proiektupeko libururik gabe geunden, nahiz eta liburu hauen zirriborroa, DBH-ko lehen ziklorako egina izan.

Bi arrazoi zirela medio ez zen liburua argitara eman: batetik errentagarritasun eza (arlo honetan taldeka lan egiten denez, taldeko liburu bakarra erosiho zela aurreikusten zen), bestetik, PP-ren gobernua ezarri nahi zuen erreformak zalantza handiak sortu zituen (teknologia arloko ikasketak aldatuko ziren ala ez ziren jakin ezinak).

Zalantza betetiko egoera hau ikusita eta liburuen zirriborroa eskutan izanik, pauso bat aurrera eman zen Haurtzaron; zirriborroak hartu, aztertu, egokitu, pertsonalizatu eta era digitalizatuan eraiki ziren eta ikasleei liburuaren fotokopia banatu zitzaizen.

CD Rom-a ikasleentzat (borondatezkoa)



Kolorezko fotokopiarik gabe material honek, irudietan batez ere, kalitatea galtzen du eta irudiaren interpretazioak teknologia arloan garrantzia handia du. Horrexegatik, kalitatea hobetzeagatik, kolorezko fotokopiek edo kolorezko inprimaketak material eta pertsonal kostuak ikaragarri garestituko zituela ikusirik eta DBH hasieran gero eta ikasle gehiagok ordenadorea etxean zutela ikusirik, **NAHI ZUENAREN TZAT**, liburua CD Rom batean bildu genuen. Hala, txuri-beltzeko liburua denentzat ziurtatu ondoren, nahia eta aukera zuenak etxean inprima zezaketen liburua koloreetan.

Liburu soila izan zen CD Rom hau asko osatu da hurrengo bertsioetan. Egun, liburuez gain, ikasleriak marrazketa sakontzeko praktikak topa ditzake, proiektuak egiteko

ideiak eta zailtasunak gainditzeko proposamenak jasota ditu, simulazio programak instala ditzake... aukera asko ditu eta, segur aski, gero eta aukera gehiago izango ditu.

lazko ikasturtean hainbat urtetan bilduta eta teknologia gelan erakusketa eta eredu gisa genituen proiektuak, denboraren eraginez, hondatzen ari zirela ikusirik, bildu eta banaka-banaka digitalizatu eta CD Rom-ari eredu gisa argazki bilduma gehitu zaio.

Hala, lan koadernoak izate hutsetik kontsultarako material izatera pasa da CD Rom-a eta etxean ordenadorerik ez dutenek, teknologia gelako bi ordenadoreetan egin dezakete kontsulta.

Etorkizunean, litekeena da gero eta material gehiagok papera alde batera uztea eta oinarri digitala aukeratzea.

Irakasleentzako material DINAMIKOA interneten




Baina, etorkizun hurbil honetan ikasleria ez da digitalizazioa egokitu beharko duen talde bakarra. Teknologia berriek eskain dezaketenaz oharturik, interneten liburu eta material **DINAMIKOA** eratu du ikasleentzat Ikastolen Elkarteak Ostadar proiektuaren bitartez.

Irakaskuntzarako material bat paperean argitara ematen denean, ohikoa gertatzen da hainbat urtetan aldaketarik gabe argitaratzea. Beste hitzetan, inprimatze eta argitaratze kostuak direla medio, errentagarri bihurtu arte ez da liburua berritzen.

Interneten zintzilikatzeak kostuen oztopoa erabat gaintitzen du. Jarduera berri batez osatu, zuzenketa bat edota liburu oso bat berritzeko artxibo bat aldatu eta kito! Ez da inprimategiko molde berria sortu behar! Hau da, urtero, inbertsio eta kostu handirik gabe liburu berria eraiki daiteke. Gainera egileez gain, beste edozeinek berrikuntza proposamenak egin ditzake edozein momentutan.

Teknologiak beraz, materialen etengabeko berrikuntza bidean jartzen gaitu.



Berritzea ez da, ordea, eskain dezakeen aukera bakarra. Arbela deitu zaion leiho batean, irakasleak liburuan aurkezten diren jarduera guztiak ikusi eta interesatzen zaizkionak hauta ditzake. Gela berean, jarduera ezberdinak dituzten liburuak bana ditzake beraz eta aniztasunaren trataerarako bide oso interesgarria da; ikasle etorkinentzat adibidez.

Era berean, liburua esfortzu handirik gabe egoki liteke. Oraingoz martxan ez badago ere, irakasleak liburuari jarduera propioak txertatzeko aukera izango du; bertan proposatzen direnak egokitzeak. Liburu originalean Bilboko portuko garabia (grua) aztertzen bada Pasaiaikoaz aldatzeko aukera oso erraza eskaintzen du material digital honek. Hau da, ikastola bakoitza, dagoen tokian izanik, bere inguru teknologikora egokitzeak aukera erraza izango du, paperezko materialetan ezinezkoa litzatekeena.

Ezaugarri hauek guztiak betetzen dituen materialari deitu nahi izan zaio dinamikoa: Urtez urte berri-itu, osatu, zuzendu... daitekeena; ikasleriaren aniztasunari egokitu zaiena eta ikastola bakoitzari pertsonalizazioarako aukera eskaintzen diona. Liburu estanko eta itxiak atzera utzi eta etengabeko ikerketan eta aldaketan arituko den material dinamikoaren bila hasiak gara teknologia berriei esker.

Ikasleek zein sarrera eta aukera izango dituzten aztergai dago, oraingoz. Hala ere, lehen aipaturiko argazki albuma, Hautzaro eta Eguzkibegi ikastolako, zintzilik dago webgune honetan.

Aurten, ekipamendu berriak teknologia gelan

Arestian aipaturiko guztiak ekipamenduen inbertsioa dakar ezinbestean. Lehen esandako moduan internetera loturiko bi ordenadore ditugu gelan, baina pantailak txikiak izanik orokorrean ikusteko zailtasunak izaten genituen.

Teknologian makina eta tresnen funtzionamendua ulertzeko ezinbestekoa gertatzen da objektua aztertzea edota hau ezean kit moduko ereduak,

krokis marrazkiak edota irudiak aztertzea. Marrazkiak hitzaren gaineko garrantzia hartzen du bai adierazpenerako bai interpretazioarako. Garrantzi honetaz jabetuta, aurten ordenadoreetako bat tamaina handiko telebista batera lotu dugu. Hau da; ordenadorean ikus daitezkeen internet orriak, argazkiak, krokisak... telebistan ikusten dira zuzenean. Telebista hau, gainera, gaiari dagozkion DVD eta bideo pelikulak ikusteko hornitu da, beharrezko irakurgailuekin.

Era berean, ikasleek erabiliko dituzte gradualki egindako proiektuen aurkezpenen bitarteko hauek guztiak eta aurkezpenetarako bereziki erosi den webcam-a; DBH amaieran topatuko duten ikus-entzunezko tailerraren abiapuntu bihurtu litekeena.

Etorkizunerako etengabeko erronka



Egonezina izango da gurea, baina garbi dugu erronka berriei aurre egin behar diegula. Esate baterako, urte pareta kostata eraiki diren ikerketa manipulazioarako egurrezko maketek ez dute betiko iraungo. Horrexegatik, bideo digitalez grabatu eta teknologiko CD Rom-ean ala DVD batean aurkezteko moduko pelikulatxoak egiteko ilusioz gabilta.

DBH-ko bigarren ziklorako liburua eratu nahi da, interneten zintzilikatzeko. Horretarako ikastoletako teknologia mintegian buru-belarri sartuta gabilta.

Marrazketa lineala ordenadorez egiteko profesionalek erabiltzen duten Autocad izeneko programa pedagogikoa baten eskizun gabilta.

Azkenik, idatzi hau amaitzeaz dagoela, fresko-fresko, laugarren mailarako izartxoak izango duguna iritsi zaigu eskura: errobotikarako materiala. Ordenadoreari loturiko zirkuitu txartel baten bidez, ikasleek sortutako programatxo sinpleez errobot baten besoaren motorrei eta argiei edo dena delakoei aginduak ematen trebatuko dira ikasleak, denbora gutxi barru. Lehendabizi irakasleak ikasi behar baitugu ondo teknologia berri hauek guztiak erabiltzen.

Josu Arotzena



Jolas Heuristikoa

Jolas heuristikoa 1-2 urte bitarteko haurrei zuzendutako jolas ekintza da, eta Karrikan, Haurtzaro Ttikin eta Harri Gainen ere lantzen dugu. Esperientzia asko ikusten ditugu eta positibotzat jotzen ditugu saio hauetan lortzen diren emaitzak. Hezitzaileok honen inguruan balorazio baikorra egiten dugu.

Jolas mota hau lantzeko prestaketa zehatz bat behar da:

- ✓ Didaktikoa ez den materiala bildu behar da, ahal dela gainera, plastikozkoa ez dena (jostailu munduan ugari baitago). Natüratik jasotakoa, etxean bildutakoa (gurasoek parte hartzen dute material-bilketan) edota dendan erosia izan daiteke, baina kontuan izanik ugaria izan behar duela (elementu bakoitzetik berrogeita hamarren bat ale) haurren artean istilurik sor ez dadin. Materiala, besteak beste, ondorengo hau izan daiteke: pinaburuak, kontxak, oihal puskak, kateak, kortxoak, pilotak, erruloak, pintzak, potoak, kutzak, tapak, giltzak, arrautzontziak, hodiak, makilatxoak, sokak... Material mota bakoitza bere poltsan jasotzen da, nahastu gabe.



- ✓ Espazioa prestatu behar da, erabiliko ez duten material guztia jasoz, haurraren arreta gal ez dadin jolasak irauten duen bitartean.
- ✓ Etenik gabeko denbora tartea eskaini behar diegu haurrei: ordu erdi edo hiru ordu laurden, haurren interesaren arabera.

- ✓ Irakaslearen presentzia ziurtatu behar da, baina ez du parterik hartuko jolasean.
- ✓ Taldeari giro lasaia eskaini behar zaio.

Haur bakoitzari material gune bat eskainiko diogu, eta gune hau lau motatako materialaz osatua egongo da, mota bakoitzetik hamar pieza emango dizkiegu ontzi eta tamaina desberdineko potoekin batera.

Jolasak bi fase ditu:

I) Lehenengo fasean haurrek materiala ikertu eta konbinatuko dute gauza ezberdinak eginez eta egoera ugari sortuz: sartu-atera, hustu, pilatu, tapatu, elkartu, itxi, ireki... Fenomeno hauen ondorioz gauza askotaz ohartuko dira:

- ✓ Gauza batzuk sartzen dira, besteak ez.
- ✓ Batzuk besteak baino handiagoak dira.
- ✓ Batzuk desagertu egiten dira.
- ✓ Batzuk geldirik egoten dira, besteak pirlilla joaten dira.
- ✓ Batzuk enkajutzen dira, besteak ez.

- ✓ Batzuk atseginak dira, besteak ez.


Ikertuz objektuen propietate eta naturako legeez (grabitatea, oreka...) ohartzen dira. Une honetan irakaslea gelan dago, geldirik, haurrek ongi ikusiko duten tokiren batean, eta taldea behatzeaz arduratuko da, soilik beharra sortzen denean parte hartuz. Haurraren interesa galtzen denean bigarren fasera pasa behar da.

II) Bigarren fasean materiala bildu behar da. Haurrak objektuak lurretik hartzen joango dira eta irakasleak daukan poltsan sartuko dituzte, material bakoitza poltsa batean. Eginkizun honetan haurrek materiala sailkatzen ikasten dute, eta era berean hizkuntza landuko dute, poliki-poliki mezuak ulertuz eta hainbat nozio barneratuz: "ekarri", "hor azpian dagoena", "bestearen ondoan", "pila bat daude", "hori ez", "hemen bota"...



Jolas heuristikoa maiztasun batekin egitea komenigarria da, eta lanketa honen ondorioz helburu batzuk lortzen dira, hala nola:

- Pentsamenduaren egituran aurrerapauso handia lortzen dute.
- Bere jolasean zentratu egiten dira.
- Manipulatzen duten materialaren propietate batzuk ezagutzen dituzte, eta elkartzen direnean ze jarrera duten.
- Autonomiaz jokatzen dute, materiala aukeratzeko askatasuna agertuz.
- Hizkuntza ulertzeko gaitasuna areagotu egiten da.
- Arrakasta eta pozaren sentimendua bizitzen dute, era berean adieraziz.
- Materiala errespetatzen dute eta beste umeen presentzi aktiboa onartzen dute.
- Isiltasun eta lasaitasuna nagusi diren giroa mantentzen dute.



Hona hemen Karrikan dagoen Unairen jolasaren sekuentzia bat, ping-pongeko pilotak eta arrautzontzi bat erabiliz... Pilotak bildu ditu eta banaka sartu ditu arrautzontzian. Zulo guztiak bete dituenean itxi egin du, baina alderantziz (pilotak taparen aldera). Irekitzerakoan denak erori zaizkio, eta harridura adieraziz berriz pilotak biltzeari ekin dio. Denak batera bildu nahi ditu baina eskuetan kabitzen ez zaizkionez erori egiten zaizkio, berriz bildu, erori... A ze interesa eta intentzioa agertzen ari den Unai bere ekintzan!

Iosune Cousillas eta Ainhoa Garaño
Karrikan 1-2ko taldeko irakasle/hezitzaileak




Janire

Ederki gogoratzzen dut Janirek lehenengoz begiak ireki zituen unea. Atera bezain pronto eskutan neukan gauza txiki hura. Mediku, bekaria, erizain eta ez dakit ze jende gehiago zegoen. Gela hotz hura utzi eta ilunago zegoen ondoko beste batetan sartu nintzen, bakarrik, nire gauzatxo txiki harrekin. Begira nengoen maitekiro aita nintzela nola edo hala barneratu nahian, pozik, eta han ireki zituen bere begitxoak eta zuzen begira geratu zitzaidan. Ez dakit bere harriduraz begiratzen zidan edo zein itsusia nintzen bereganatu nahian zebilen.

Dagoeneko sei hilabete igaro dira eta harriturik nauka oraindik ere nola gai izan naizen horrelako gauza eder bat gure artera ekartzeko. Alaia, bihurria, ezin geldirik egon neskatala hau! Bere aulkitxoan geldirik ikusten duten egunean afari batera gonbidatuko zaituztet guztioi, baina ez esperantza askorik eduki. Halere, bere irribarre batek, emandako nekeak erraz estaltzen ditu.

Jaio eta gutxira Rexu-enea, Marijo-etxe, losunetoki, Ainhoa-leku... edo nahi baduzue Karrikako haurtzaindegira hasi zen gure poxpolina. Hasieran



errezeloren bat baneukan moldatuko ote zen edo arrotz egingo zitzaion, baina bigarren eguneko ahaztuak nituen nire zalantzak. Alderantziz, beste zalantza batzuk sortu zitzaizkidan, etxean baino hobeto ez ote zegoen haurtzaindegian!

Orain hementxe daukat nire ondoan, jolasten ari da bere jostailuekin, bere betiko ezin egonarekin, noizean behin begiratzen dit irribarre bat askatzen du

eta gero pentsakor geratzen da esanez: Zertan ari ote da ero hau beti trastu horrekin gora eta behera, beno ni nire asuntoetara. Eta hor jarraitzen du bat bota eta besteari helduz. Aurrerago izango du buruari hamaika buelta emateko beta baina oraingoz gorriari heldu edo urdinak ze soinu egingo duen dira bere buruhauste bakarrak.

Besterik gabe, laster izango duzue gure lurrikaraxoren berri eta onerako izango ote da! Ea Janire esan agur denei, berriz ere harriduraz begiratzten dit zer esaten ari naizen ulertuko balu bezala.

JON PERURENA
Partzuergoko Batzordekidea



Matte zattut laztana!

Nire bihotz**eko** azukre koxkorra,
zu zait**ut**,
goizeko kafe beltz,
zaka**r** eta garratza
gozatz**en** duen
peluxezko hartz leuna.

Nire **b**ihotzeko peluxezko hartza,
zu zai**tut**,
goizeko jaikia**ldi** latz,
des**a**tsegin eta sakona
errazten dida**n**
ha**rr**ibitxi distiratsua.

Nire **b**ihotzeko harribitxia,
zu zai**tut**,
amets gaiztoetako munstro bakoitza
hi**lt**zen,
desagerrarazten,
la**g**untzen didan
ametsetako printze urdi**a**.

Nire bihotzeko printz**e** urdina,
zu zara,
baina,
non zai**tut**?

Zure bila na**bil**,
zure ondoan ego**n** nahi dut,
zurekin bizipoza**a** pixka bat alaitu.
Ezin dut,
bizitzen jarraitu
agur!

Nahikoa da,
jada nazkatu naiz,
oso triste nago,
kaiolaren barruan dagoen,
pareta txoria baino
tristeago,
bi burdinen barruan dagoen,
presoa baino
lur jotago,
txakurrengandik ihesean dabilen
iheslaria baino,
nazkatuago.

Aski da!

Jada erabaki dut
arazoei aurre egin,
zakurrei zaunka egin,
burdinazko barroteak moztu,
eta nik nahi ditudan,
pentsamendu,
guztiak bete,
maitemindu,
eta printze urdinari,
zorioneko bisita egitea.
Gaztelura bueltatzea,
nire sentimenduak adieraztea,
atea jotzea,
bere begi distiratsuen aurrera joatea,
eta behingoz esatea:

MATTE ZATTUT LAZTANA!

DBH 4. mailako Nahikari Errazkin



Koloreak ez du pertsona egiten

Berandu da, baina ezin dut lorik egin, izarrak daude zeruan eta ilargi betearen distira sartzen da leihotik. Egun oso nekagarria izan dudana arren, ezin ditut umezurtz egondako azken hamar urte hauek ahaztu. Oso urte bereziak izan dira niretzat, bereziak bezain gogorrak. Lau urte nituela guraso gabe gelditu nintzen, nire ama gaixotasun larri baten ondorioz hiltzeaz zegoen eta hori ez gertatzeko, anaia eta arreba txikiak esklabo izateko saltzea zen erremedio bakarra, sendagaiak erosteko beharrezko dirua emango baitziguten horren trukean. Azkenean, hilabete gogor baten buruan ama hil egin zen. Ordutik, hamar urte hauetan, ez dut anaia batzuei buruz ezer jakiterik izan. Faltan botatzen ditut, noski, haiek baitziren nire etxeko bizi-poza.

Bihar etorriko dira etxe berri batera eramango gaituzten guraso berriak, nire anaia Ahmed eta arreba Shafiyarekin, umezurtzegi batean bizi izan bainaiz azken urte hauetan.

Argitu du egunak eta lehenengo eguzki izpiekin batera altxatu naiz ohetik; jantzi, eta anaia esnatzera joan naiz lehenengo, ondoren, biok jantzita geundenean, arreba esnatu eta denen artean ekipaia prestatzen hasi gara, ez baikara sekulan toki honetara itzuliko.

Jangelara joan gara, bertan gosaltzen zeuden guztiek txalo zaparrada handi batez agurtu gaituzte eta lagun askori malkoren bat edo beste ikusi diedala uste dut. Niri ere pena handia ematen dit lagunak hemen utzi beharrak, urte asko izan baitira elkarrekin igaro ditugunak.

Gosaltzen ari ginela, zuzendari andrea etorri da beti bezain apain eta dotore. Jada etorri omen dira gure bila datozen euskaldunak.

Haur ilara luze batez jarraituta atera gara sarrerara. Ama eta aita daude nire adineko neska baten ondoan, nire arreba izango da hemendik aurrera. Orain arte ikusitako neska ederrena da, azala elur zuriaren kolorekoa du, ileak, berriz, urre distiratsua dirudi eta bere begiek sekulan ikusi ez dudana itsaso urdinaren kolorea dute. Oso jatorra dela ematen du, zuzendariak gurasoekin eta nirekin hitz egiten zuen bitartean, gure lagunak ezagutzen eta haiekin jolasten egon da.



Zuzendariarekin egindako hizketaldiaren ondoren, nire familia berriarekin toki hartako txoko guztiak bisitatu ditugu, nire familia berriak ez du Hego Afrika ezagutzen eta. Bisita bukatzean, autoz, inguruko herriak, oihanak, paisaiak eta horrelakoak ikusi eta bazkaldu ondoren, aireportuan hegazkina hartu dugu, gure bizitokirantz, Euskal Herrirantz. Ez nuen inoiz imajinatuko aireportua bezalako leku handi eta eder bat egon zitekeenik, hainbeste hegazkin, hainbeste jende, hainbeste ekipaia...

Hegazkinean June, nire arreba berriaren ondoan jarri naiz eta gure aurrean nire anai-arrebak.

Bide guztian hitz egiten egon gara, eskolan ikasitako gaztelania praktikan jarritz, gure lagunez, ohiturez eta Euskal Herrian itxaroten ninduen bizimoduaz. Bidaian oso lagun egin gara eta herrira iristean ere elkarrekin egoten gara gau eta egun.

Hemengo jendeak, ordea, ez nau oso ondo tratatzen, ez dute nire lagun izan nahi, Ahmed eta Shafiyak, ordea, lagun ugari egin dituzte. Badirudi txikiek ez diotela garrantzi handiegirik ematen arraza edo koloreari.

Oso bakarrik nago, June da nire konpainia bakarra, lagun bakarra. Kaletik nabilela denek nitaz hitz egiten dutela nabaritzen dut momentu oro eta ez dute ahotsa jaisten nik entzun ez dezadan, ez baitzaie axola ni bezalako mutil beltz bat nola senti daitekeen edo nolako mina egitera irits daitezkeen ere. Gainera, Junerekin ere sartzen hasi dira, nirekin egoten dela eta.



Atzo herriko zinemara joan ginen June eta biok, bazirudien filmak ez zuela garrantzi handiegirik, denak guri begira eta gutaz hitz egiten egon baitziren: nola egon zitekeen, bada, June bezalako neska bat ni bezalako mutil batekin, beltza, atzerritarra, gurasorik gabekoa, eta euskaraz ere, nekez hitz egiten duena.

Egunero oroitzen naiz iraganeko bizitza lasaiarekin, nire gurasoekin bizitako momentu alai eta politekin, haiek azken aldiz ikusitako momentu triste eta gogorrekin, umezurtz egondako urteekin..., baina June asko laguntzen nau une horietan, eta horrela nire bihotzaren jabe egin da.

Ikastolan inork ez du nire ondoan egon edo nirekin talde lan bat egin nahi. Gure herrian, berriz, denak ondo konpontzen ginen gure artean eta nire izebak gizon zuri batekin ezkondu eta seme zuri bat eduki zuen arren, ondo eramaten ginen berarekin, beti elkarrekin jolasten ginen. Ez dut ulertzen beltz batek zurien artean zergatik egon behar duen baztertuta, guk ez ditugu gure kolore bera ez dutenak baztertzen eta!

Hemengo jendeak, aldiz, gu baino hobea dela pentsatzen du eta gutxietsi egiten gaitu, izkina batean baztertu. Junek ez du horrelakorik egiten, ez da beste guztiak bezalakoa, bakarra da. Berak pertsona bezala tratatzen nau, ez arraza ezberdin bateko mutil beltz bat bezala. Gainera, gainontzeko jendea nirekin ondo portatzea nahi du eta horretan ahalegintzen da beti. Baina alferrik, hemengo edukaziorik gabeko jende arrazista eta maltzurra ez da sekula aldatuko.

Negua da eta familia osoa elurrarekin jolastera joan gara mendira, Shafiya eta Ahmedek ez baitute inoiz elurrik ikusi eta irrikan daude. Nik ere ikusten dudana lehen aldia dut gaurkoa eta ilusio handiz goaz denok mendira.

Eguberriak iritsi dira eta hauekin batera oporrak. Familia osoak Eguberrietan elizara joan eta erreztzeko ohitura du eta gu ere haiekin joan gara. Nahiz eta erlijio honetako errezo eta ohiturez ezer gutxi jakin, arropa dotoreenak jantzi eta herriko elizara abiatu gara. June eta ni atzean gelditu gara, bakarrik egotea gustatzen zaigu, horrela gure gauzez hitz egiteko, izan ere, elkarrekin irteten hasi gara. Gaueko afarian gurasoei gure harremanaren berri emateko asmoz iritsi gara elizara. Ez dakigu nola hartuko duten, ulertuko dutelakoan gaude, azken finean, beraiek ere maitemindu ziren eta badakite zer den horrek sentiarazten duena.

Iritsi da ordua, afaria mahai gainean dago eta denak esertzen hasi dira. Dena June kontatu behar lukeela pentsatu dugu, berak jakingo du zer esan eta nola, nik baino hobeto ezagutzen ditu eta.

Itzuli dira klaseak, lanak, lagunak (hala deitzea merezi ote?) pozik nago, gurasoek ez dute oso gaizki hartu gure artekoa; beno, hasieran apur bat kostatu zitzairen, baina berehala ulertu zuten maitasunak ez duela mugarik eta muga horiek guk jartzen ditugula.

Urte berriarekin bizitza berria hasten dela diote, eta hori esan zuenak arrazoi guztia zuela uste dut.

Jendeari ere urte berriarekin bihotza berritzen zaiola dirudi. Junek, lagunak onar nazaten, jendeari nire lehengo bizitzaz hitz egin dio eta ulertu dute ni hemen egotearen zergatia, baita beltza edo zuria izateak ez duela garrantzirik ere. Begira diezagutela bestela Juneri eta niri, batzuetan, azaleko kolorea ezberdina izan arren barrutik berdinak garela iruditzen zait!



DBH 3. mailako Ane Aiestaran
Marrazkiak 2. mailako haurrak



Laburpen tentatzailea

BIOLIN BAT MARIBELTXARENTZAT



PATXI ZUBIZARRETA

edebé-giltza

Biolin bat Maribeltxarentzat

Egilea: Patxi Zubizarreta

Argitaletxea: Edebe-giltza


Maribeltxa Ilarriko neska bat da biolinaz maitemindurik dagoena eta Sebastian Arrosagari Maribeltxaren ikaslea da.

Egun batean Sebastian hil egiten da eta Sebastianen semeak,aitak Maribeltxari eman zion biolin zaharra eskatu dio.

Zer egin behar du Maribelxak orain biolinik gabe eta irakaslerik gabe?



Nondik pasatu
beharko du
elur-lerak etxera
iristeko?



PICANYOL

Neguak eta elurrak proposatzen digute...

Arriskua edo abentura?

Hori bakoitzak erabaki beharko du


Leku batera eta bestera begiratzuz ohartu gara garai batean ezinezkoak edo jende "arruntak" egin ezinak irudikatzen genituen zenbait ekintza, gaur egun eskura ditugula.

Hauetako batzuk guztiz aproposak dira neguan egiteko. Beste batzuk edozein garaietan egin ditzakegu baina neguan egiteak badu bere xarma, goatzeko aukera naturarekin eta bertan aurki ditzakegun koloreekin: zuriak, horixkak, marroixkak, gorrixkak... denak ere kolore "beroak" edo beroa eragiten dizkigutenak. Bero honek anima gaitzake etxetik ateratzera, sutondoa laga, berogailua umezurtz utzi, gure buruari indarrak eskatu, gogoak edozein lekutik atera eta ABENTURARA! Ala arriskua ote?


SNOWGAMES

Joko hauek Andorrako Soldeu el tarter eski estazioan sortu ziren elur jokoetan eta neguan zerbait gehiago egin daitekeela adierazteko.

Bertan proposatzen dituzten jokoak hauek dira: Snowbike mendi txirringaz elur jaitsierak egitea; Snowsurf salto akrobatikoak egitea; Snowrunning raqueta gaineko lasterketa eta azkena Snowgliss oztopoz eta saltoz betetako jaitsiera.




ZALDI IRTEERAK



Pirinioetako leku ezezagunak eta era desberdinean goatzeko proposamena. Egun osoko irteerak izaten dira eta uztatutako herriak, ur jauziak, basoak... topa ditzakegu.

MUSHING



Kirol honek txakurrak eta gizonak elkartzen ditu elurretan ibilbideak egiteko. Bi aukera dituzu kirol honetaz goatzeko: gidatzea, edo lasai lasai txakurrek tiratzen duten leran eserita joatea.

Beste ekintza gehiago ere badira: Elur motorrak, Freeride, eskia, Erraketetan ibilbideak... bakoitzak bere indarrak neurtu eta AURRE-RA!!!

Argitarapen honen edizioa laguntzailerik:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti



"la Caixa"

"Oiertzuarren
zerbitzura gaude"

Mendiburu kalea 2 • ☎ 943 49 47 19



CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



ETXE ONENAK, S.A.

Bizitegi Sustapena

MENDIBIL BERRI kalitate handiko etxeak eraikitzen

Plaza de Guipúzcoa 2-3º dcha. • 20004 Donostia • ☎ 943 42 95 21 • Fax 943 43 02 19



BIOK ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea • Garmendi bidea 3 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 25 01 • Fax 943 49 25 01

construcciones

ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) • 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772



Hotel LINTZIRIN s.a.



☎ 943 49 20 00 • Fax 943 49 25 04

CTRA. MADRID - IRUN KM. 469 • e-mail: lintziri@adegi.es
OIARTZUN - GIPUZKOA



TAJO

Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Poligono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 • Fax 943 260 250



Alcampo

OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



AMENABAR

AENOR



Empresa
Registrada
ER-424/2/96



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea 13 - 6. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ 943 49 16 41



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Konponketak, Erakusketa, Salmetak eta Karrozeria

Ihurrita Bidea 13 - 1. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ eta faxa: 943 49 18 48 - 943 49 41 36



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapetan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 - 943 26 03 91

Carrefour



OIARTZUN MERKATARITZA ZENTRUA